

# BERRIGARA

133. zenbakia

JARDUN ELKARTEA Bergara

1994, urtarrilak 14


UDALAK  
HERRIKO  
ARGAZKI  
ZAHARRAK  
BILDU NAHI  
DITU

MAIATZERAKO  
SUHILZAILE  
BOLUNTARIOAK  
ZUBILLAGAN

## KIROLAK

TXAKUR  
NORDIKOEN  
EUSKADIKO  
TXAPELKETA  
BERGARAN

## *Miserableen iraultza*



HAGIN KLINIKA

BERGARA

Bidekurutzeta, 6 2. (Notaria egon zen lekuan)  
☎ 76 05 77

ODONTOLOGIA OROKORRA  
HAGIN EZARKETAK  
PROTESIAK  
HAGIN ESTETIKA

**LEHENENGO AZTERKETA DOAN !!**

# PRESTAKUNTZA PLANA

## IKASTAROAK

### IKASGAIAK

- WORD-PERFECT (Testu tratamendua) .....
- Dbase IV (Datu basea) .....
- LOTUS 1, 2, 3 (Kalkulo orria) .....
- OINARRIZKO ELEKTRIZITATEA .....
- AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK .....
- ORDENAGAILU BIDEZ LAGUNDUTAKO DISEINUA .....
- ZENBAKIZKO KONTROLA "Fresa" .....
- ZENBAKIZKO KONTROLA "Tornua" .....

### IRAUPENA/HASIERA

40 ordu	31-1-94
40 ordu	3-3-94
40 ordu	25-4-94
40 ordu	28-2-94
40 ordu	25-4-94
100 ordu	31-1-94
40 ordu	25-4-94
40 ordu	31-1-94



INFORMAZIOA:  
Migel ALTUNA INSTITUTOA (Bergara).  
Tfnoa: 76 24 91. Faxa: 76 38 41.



Migel ALTUNA

institutua

Bergara

## BEDELKAR elkartearen oharra:

Hil honen 10ean, Irala gestoriaren laguntzarekin, Aranzadi ikastolaren lokaletan gero eta sektore gehiagotan, eta tartean komertzioan, aplikatzen ari diren neurri fiskal berriei buruzko txarla izan zen. "Modulakoko zerga" deitutakoa da, eta zergadun gehienei gehiago ordaindu beharra ekarri die. Txarla horretan aipatutako zergaren eraginak eta alternatibak aztertu ziren eta modalitate hau erabiltzea nori komeni zaion eta nori ez.

Modalitate honi uko egiteko epea urte honetako urtarrilaren 15ean amaituko da.

Lerro hauen bitartez, txarлак izan zuen harreragatik eskerrak ematen dizkizuegu.

OHARRA: Aldizkari honen aurreko alean, elkarteko kideen zerrenda eman genuen eta huts bategatik, ez genuen "Tejidos Fernandez" en izena sartu. Gure barkamenik sentikorrena.

BEDELKAR  
Bergarako Dendarien Elkarte

Argitaratzailea:  
Jardun Elkarte  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara  
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

Babelea: Bergarako Udala.

Zuzendaria:

Gorka Elorza.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
eta Mikel Elkoroberezar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo  
Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne  
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña eta Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel

Angel Elkoroberezar, Juan

Martin Elexpuru, Josu Oregi,

Maripi Laskurain, Nerea Alzelai,

Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa,

Mikel Lizarralde, Monika

Belastegi, Aitziber Aretxaga,

Ainhoa Bikuña, Asier

Madinabeitia, Josune Iñarra eta

Ane Miren Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

Komikia eta marrazkiak: Josu

Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.500 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esan-  
nen eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK



**Beherapenak** inoiz baino goizago heldu dira aurten (Gabonen aurretik hainbat kasutan) baina herriko hainbat dendarien eritziz, "inoiz baino gutxiago saldu dugu". Batek aipatu digun bezala, "jendeak krisia dela esaten du baina ez dakit nik sinesgarria den hori, oporrak heltzean jende

guztiak alde egiten baitu. *Beharbada obitura alda-keta izango da..., auskalo! Jendea hotza dago erosteko orduan eta nabiko gaizki joan zaigu aurten".*

Aste honetan bertan beherapoenetan hasi diren komertzioek datozen egunetan egoera aldatzeko itxaropena daukate.

## ESAN DUTE

"Mendizale amorratua nintzen gaztetan eta ikusten nituen parajeak argazkitan plasmatzeko beharra sentitu nuen. Ikastaro batzuk egin nituen eta soldaduzkara joan aurretik argi nuen profesionala izan nahi nuela. Hamar urte egin nituen Bergaran sozio batekin, gero beste hamar Arrasaten eta azkenik, Estatu Batuetan. Ez dakit, baina aldatzeko beharra sentitzen dut denbora luzez gauza bera egiten igaro ondoren "

**PEDRO LUIS ORMAZABAL**  
Argazkilaria  
EGIN

## Dendarien ustez inoiz baino makalago aurtengo beherapenak

## ITURRI ONETIK

### AEKren euskaltegia Bergaran

AEK Alfabetatze eta Euskaduntze Koordinakundeak euskaltegia zabalduko du Bergaran. Azken urtetan ez da AEKko euskaltegirik izan Bergaran (inguruko hurbilena Arrasatekoa zen), Barrenkalen zuten lokala itxi zutenetik. Orain, herritar talde batek bultzatuta, berriz ere bere atea zabalduko ditu AEKk, Masterreka 13an (JARDUNen aldamenen) hartu duen lokalean. Aurkezpena urtarrilaren 18an egingo da Kultur Etxean.

"Musikoa naiz eta nere Nortasun Agiri Nazionalak hala dio. Asko atsegin zaidan hitza da gainera. Nik musika egiten dut, besterik ez"

**ALFREDO GONZALEZ CHIRLAQUE**  
Musikaria  
EL CORREO



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurriaritzako Kultura eta  
Turismo sailaren laguntza jaso du

## Beheko Taberna

Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Atsedeen zentrua

## LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

## ZUBIETA

### elektragintza

- ✓ Motoren bobinaketa
  - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnoa: 76 23 48



**MIRA QUIEN HABLA AHORA**

Ostirala: 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.  
Astelehena: 19.30.



**EL FUGITIVO**

Larunbata: 17.00, 19.30,  
22.30.



**MI PADRE, MI HEROE**

Osteguna: 19.30.

**Zinea**

▼▼ Ubriacco familiaren etxea hankaz gora dago. Mollyren (**Kirstie Alley**) senarra (**John Travolta**) etxetik kanpo dago beti eta haurrak zaintzeaz gain, eritzi bitxiak dituzten bi txakur (**Veronica Forqué** eta **Moncho Borrajoren** ahotsak) gehituko zaizkie. Eroetxea.

▼▼ *Richard Kimble* (**Harrison Ford**) sendagileari bere emaztearen heriotza leporatuko diote eta honek ihes egin beharko du erruduna ez dela frogatzeko. Izen bereko telebista seriean oinarrituta, tentsioa ez da falta filme guztian zehar.

▼▼ **Gerard Depardieu** ezagunak (*Cyrano de Bergerac*) dibortziatutako gizonaren papera egiten du. Bera ia konturatu barik, bere alaba (**Marie Gillain**) hazi eta maitemindu egingo da, elkarrekin igarotako oporretan.

**Deiak**

▼ **San Anton Abad Jaiak.**

• **Larunbatean** txapligu jaurti keta 12etan, txikiteoa ordubatean, mus txapelketa 4retan Zubiberrin Sagardotegian (izen-ematea 1.000 pta. bikote bakoitzeko), txapliguak 6etan, txikiteoa 7etan eta afari herrikoia 9etan.

• **Igandean** Meza Nagusia 11etan, Krosa 12etan, herri kirolak 12.30etan, jolasak ordubatean, txikiteoa jarraian eta arratsaldean sari-banaketa eta jaien amaiera.

• **Astelehenean** auzoko anai-dearen bilera 9.30etan, San Anton Deunaren basilizara igoera 10.30etan eta Meza Nagusia 11etan.

**Ogia**

▼ **Igandea 16:** Bolintxo.

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Larunbata 15:** Guallar/Español.
- ▼ **Igandea 16:** Guallar/Corcuera.
- ▼ **Astelehena 17:** Estella/Irizar.
- ▼ **Asteartea 18:** Mozos/Amezua.
- ▼ **Asteazkena 19:** Camacho/Ruiz.
- ▼ **Osteguna 20:** Puy/Morales.
- ▼ **Ostirala 21:** Guallar/Español.



**ETXEPARE-BILINTX**

**LIBURUDENDA**

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

*Liburuak eta diskoak*



▼▼ **Udal Musika Bandak** kontzertua eskeiniko du igandean 12.30etan Novedades aretoan. Alfredo Glez. Chirlaqueren zuzendaritzapean, ondoko lanak eskeiniko ditu: *Gipuzkoako Futbol Federazioaren ereserkia* (Glez. Chirlaque), *Efigemia en Aulis* (Gluck), *Maram* (Penders), *El asombro de Damasco* (Luna) eta *Oregon* (Haan). Goian Gabonetako kontzertuaren Jabier Areitioren argazki bat.

▼▼ **San Anton Abad** jaien barruan, igande eguerdian XVI. Nazioarteko Krossa jokatu da. Partaideek 7,5 kilometroko ibilbidea bete beharko dute eta izen-ematea orduerdi lehenago itxiko da. Proba amaitutakoan salda eta hamarretakoa izango da gerturatzaren diren guztientzat. Hamabi t'erdietan, berriz, herri kirolen erakustaldia egingo da eta ordubetetan kaskarajokua, ume jolasak eta txerri harrapatzea iragarri dira.



XVI. Nazioarteko Krossa igande eguerdian San Antonen.

# KIROL

## KARTELDEGIA

### PELOTA

**BERGARA-GERNIKA**  
Jubenilak binaka  
**BERGARA-ALKIZA**  
Jubenilak banaka  
Igandean 11etan Pelotalekuan.

### ESKUBALOIA

**BERGARA-LEIZARAN**  
Kadete mutilak  
16.00etan Kiroldegian  
**BERGARA-LEIZARAN**  
Jubenil mutilak  
17.15etan Kiroldegian  
**BERGARA-USURBIL**  
Kadete neskak  
18.45etan Kiroldegian.

### IGERIKETA

Igeri Espezifikazio Ligaren 2. ihardunaldia larunbatean 16.00etan Agorrosingo Igerilekuetan. Alebinentzat. Igerilekuak itxita izango dira 13.30etatik aurrera.

### FUTBOLA

**BERGARA-KILIMON**  
2. Errejonala  
Larunbatean 16.00etan Ipintzan.  
**BERGARA-ARETXABAETA**  
Infantilak  
Igandean 10etan Ipintzan.  
**FUTBOL ESKOLARRA** larunbatean 9etatik aurrera Ipintzan. Alebinak eta infantilak.

### HARATEGIA

## ANTIA

### URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

## MAKAILO

Makailau **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

## EZPELETA

### etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

**Iñigo Igartuaren argipena**

Gabon aurretik nik egindako adierazpen batzuk zuzendu nahirik, Lokatzako entrenadore eta txirrindularien artean interpretazio txarra izan zela esatea gustatuko litzaidake. Lokatza Txirrindulari Elkarteak Batzarrean, aho batez, ziklo-kross, mendi bizikleta edota pista espezialitateak lantzeko aukera onartu zen eta ez da inolako zigorrik izango hori egitea erabakitzen dutenentzat.

**Iñigo Igartua**

**BERRIGARAKO Zuzendari jauna**

Honen bidez, abenduaren 23an ETBren TELEBERRI saioaren amaieran eman zuten Musika Eskolako kontzertuaren zatia aurkeztean izan zuten akatsa zuzendu nahi nuke: hain zuzen, Ugalde jaunak Aranzadi Ikastolako abes-taldea bezala iragarri zuen, eta aipatu bezala Musika Eskolako zela argi gera dadila.

Bidebatez, Musika Eskola hau, bere zuzendaritza, irakasle eta ikasleak zintzoki ditut beraien lana eta emaitza zoragarriengatik. Honekin lotuta, Errege Magoengandik jaso dudana oparirik ede-

rrenaz berri eman nahi dut: "Miserableak" hain zuzen, eta bide honetaz baliatzen naiz Alfredo eta Valen Erregeei eta beraien "sekito" guztiari -zenbat mago, zenbat magia!- eskerrak emateko bihotz bihotzez.

Agian gehiegi litzateke, baina ausartuko naiz eskatzen: ea aurrerantzean ere, hain mago eta emankor segitzen duzuen. Eskerrikasko.

Ez dago zalantzarik: Errege Magoak benetakoak dira.

**Rosa Narbaiza**

**Udaleko komiteak alkateari**

Udaleko langileen Asanbladak EGINI egindako boikota baliogabetzeko eskatuz egindako eskaria dela eta, Victoriano Gallastegi jaunak 1993ko abenduaren 23ko Berrigararen kaleratutako adierazpen larriak direla eta, honako hau adierazi behar dugu:

Udal honetako langileek 93-12-15ean egin zuten asanbladan onartu egin zutela Udalak Egin egunkariari informaziorik ez emateko hartutako akordioa zela medio LAB sindikatuak aurkeztutako mozioa eta Alkateari horri buruzko idatzia bidaltzea. Horretarako egindako bozketako emaitzak ondokoak izan ziren:

Berataratutako langileak: 94.

Alde: 64.

Kontra: 8.

Zuri: 8.

Alkate jaunari helarazitako idatzian (Enpresa Komitearen presidentek sinatua eta komitearen zigiluaz) argi agertzen zela langileen asanbladaren gehiengoak demokratikoki hartutako erabakia zela.

Hortaz, langileen gehiengoak hartutako erabakiak errespetatu ditzazula eskatzen dizugu, nahiz eta hauek ez izan zure gustukoak.

**Bergarako Udaleko Enpresa Komitea**

**Tiira ba!**



**Josu Okino**

## Amodiozko gutunak

JARDUN Elkarteak antolatutako Amodiozko Gutunen II. Berrigara Lehiaketara lanak entregatzeko epea astelehenean amaitzen da. Lanen gehienezko luzera bi orrialdekoa da, eskuz zein makinaz idatzi daitezke eta lanak BERRIGARA astekarira (Errotalde Jauregia, 20570 Bergara) bidali behar dira.

## Kartel lehiaketa

Udaleko Jai Batzordeak Aratuztetako programaren azalerako antolatutako kartel lehiaketarako lanak (guztiak *Bergarako Aratuzteak*. 1994 testuarekin) astelehenera arte jasoko dira Kultur Etxean. Irabazleak 50.000 pta.ko saria eskuratuko du.

# Argazki zaharren bila

*Udalak aintzinako argazkien bilduma osatu nahi du*

Bergarako Udalak argazki zaharren bilduma egiteko eskatu dio Pol-Pol Argazki Taldeari. Dani Santos Informazio Zientzietan lizentziatua eta Pol-Pol Argazki Taldeko kideak aste honetan bertan hartu du lanaren ardura. Azkenaldian argazki lehiaketa ezberdinetan saritua izan den Santosen hitzetan, *"hiru hilabetetan lana amaitzea espero dut. Lehenengo bi hilabetetan argazkiak bildu eta ondoren lan zailena egingo dut, argazki guztiak identifikatu (agertzen den jendea, toki ezberdinak..., etab) eta ondoren sailkatu, alegia"*.

## 1.000 argazki inguru

Proiektu honen arabera, Udalak mende honetako argazkiak bilduko ditu, ondoren eta aukera izanez gero, liburuxka bat argitaratzeko asmoz. Ber-



Mende honetako argazki zaharrak bilduko ditu Dani Santosek.

tan herriak izan duen eboluzioa azalduko litzateke argazki bidez, herri-tarrek ere berebiziko garrantzia izango luketelarik.

Dani Santosek herritarren partaidetza eskatu nahi du lerro hauen bidez; *"bat, 1.000 argazki*

*inguru berreskuratu nahi ditugu eta horretarako jendearen parte-hartzea ezinbestekoa da. Kopia bat atera eta bi egunetan gehienez, beren jabeei bueltatuko zaizkie"*. Interesa duten guztiak BERRIGARAN laga ditzakete erretratuak.



# Gaspar

Jatetxea, Txokolategia,  
Self Service-a

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

# Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.

Tfnoa: 76 43 07

# LXUKLIN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA

# MUJIK A

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67

BERGARA

### Jubilatuak Tanborradara

Jubilatuak Donostiako Tanborrada ikustera joateko irteera iragarri dute urtarrilaren 20rako. Irteera goizeko 9.30etan egingo da, 12etan hurren tanborrada ikusiko dute, 13.45etan bazkaria izango da Errenteriako Jubilatuen Egoitzan eta 15.30etan auzoz auzo burutuko den tanborrada. Itzulera, arratsaldeko 8etan. Interesatuak Jubilatuetan eman dezakete izena, 1.600 pta. ordainduz.

### Xaputzen bigarren alea

Ipintza Institutuko ikasle talde batek Xaputz aldizkariaren bigarren alea kaleratzeari ekin dio. Bi urte pasa ondoren, proiektu honi eutsi nahi diote ikasleek, eta horretarako jendearen parte hartzea (artikulu, erreportaiak edota eritziak bidaliz) eskatu dute.

### Bonba mehatxua

Astelehen goizean bonba mehatxu bat jaso zen Kutxak Plazan duen bulegoan eta horren ondorioz Plazarako sarrerak itxita izan ziren pare bat orduz.



Arrasateko Aita Menni Ospitalean IGPak Maltzaga-Urbinari buruz eztaidatu dute.

## Maltzaga-Urbina eztabaidan

### IGP herritarren eztabaida taldeak martxan

Astelehenean martxan jarri ziren Arrasaten NIP-IGP (Interbentzio Gune Partehartzaileak), Maltzaga-Urbina proiektuaren inguruan sortutako herritarren eztabaida taldeak. Lehen fase honetan 350 pertsona (zozketa bidez aukeratuak) 14 IGPtan banatu dira eta horietako bat (25 pertsonaz osatuta) aste osoan Arrasaten izan da lanean, proiektuari enmendakinen bat aurkeztu diotenen azalpenak entzun eta ondoren beren erabakia azalduz.

Maltzaga-Urbinak zeresan ugari eman du hasieratik eta horren lekuko ditugu proiektuaren alde eta kontra sortutako bi taldeak. Bestalde, IGPen ardura daraman Gizearteaz taldeak Portu, Ubide eta Bideetako Ingenierien Kolejioa prozesutik kanpo utzi behar izan du, bere aukeraketan Eguzki talde ekolojistak salatutako irregular-tasunengatik. Datozen bilerak urtarrilaren 29tik martxoaren 25era egingo dira eta maiatz aldera IGPei informe bat egingo dute.sssss

## INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

## ONENA TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

## GOIERRI Autogidariaren eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA





Ertzaintzaren komisaldegiko kanpoaldea egoera oso txarrean dago.

## Komisaldegiko kanpoaldea berriztu

### Ertzaintzaren etxeko hesia eta sarrera konpondu beharra

Gabonetan egindako Plenoan, Bergarako Udalak Diputazioarekin konbenio bat sinatzea onartu zuen, Zubillagako Suhiltzaileen Parkean Mankomunitatearen borondatezko zerbitzua sortzeko helburuarekin. Konbenio horren arabera, Bergarak 6-8 borondatezko suhiltzaile eskaini beharko lituzke eta hauen lana musutrukekoa litzateke. EAJ, PSE-EE eta EAK aldeko botoa eman zuten eta HB, berriz, abstenitu egin zen.

Bestalde, alderdi guztiek, aho

batez, Udalak idazkari bat kontratatzeko Diputazioari eskakizuna egitea erabaki zuten, Kontxi Ugaldek orainarte bitarteko lana bete baitu. Azkenik, Gobernu Batzordeak Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailari baimena eman zion Ertzaintzaren komisaldegiko pareta, hesia eta sarrera berrizteko. Udalak 6 hilabeteko epea eman dio Barne Sailari lan horiek egiteko. Era berean, Elosuko frontoia isteko proiektuaren baldintzak onartu ziren. Aurrekontua, 900.000 pta.

### Lokatzaren ideia

Lokatza Zilismo Eskolak dei egiten die 1981. urtetik hona jaio eta txirrindularitza egin nahi duten guztiei ostegunetan, Setatik 9etara bitartean Lokatzak Seminarioan duen lokaletik pasatzeko.

### Bergara K.E.ren zozketa

Bergara Kirol Elkarateak zozketatutako Gabon saskia 31.419 zenbakiaren jabeak eramango du (ordezko zenbakia: 25.696). Bigarren saria 7.983 zenbakiarentzat izango da (ordezkoa: 3.072).

### EAJren zozketa

Eusko Alderdi Jeltzalearen zozketan, 5.298 zenbakiari bizikleta bat tokatu zaio eta 4.486 zenbakiari, berriz, saskia.

### Lokatza

34 zenbakiak irabazi du Lokatzak zozketatutako Miguel Indurainen mendiko bizikleta (ordezko zenbakia: 7.984). Epea hilabete barru amaituko da.

### Musika Eskola

11.384 zenbakiak Gabon saski bat irabazi du.



DEBA  
**GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Arrazadi, 2 behea. ☎ 76 21 80  
76 06 37

## TXURRUKA AUTOAK

Taxi eta mikrobus zerbitzua.  
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.  
Era guztietako erreparazioak.  
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorenzo auzoa BERGARA.

☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia



PEUGEOT-TALBOT

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.**  
**Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 12 31

Diputazioa eta Deba Garaiko Mankomunitatea konbenio bat sinatzekotan dira eta horren arabera, Zubillagako suhiltzaileen parkean 30-40 suhiltzaile boluntario izan daitezke. Gure herriari dagokionez 6 edo 8 suhiltzaile boluntario izango dira, Maiazaren amaierarako Zubillagan. Halere sinatzeaz dagoen konbenio horrek suhiltzaile profesionalen artean desadostasunak sortu ditu.



Zubillagako parkean momentuz 18 suhiltzaile daude.

# Suhiltzaile izateko aukera

*Diputazioak eta Mankomunitateak sinatuko duten hitzarmenak bonbero boluntarioen brigadak sortuko ditu*

**Z**ubillagako suhiltzaileen parkean 18 suhiltzaile profesional daude eta Diputazioak eta Mankomunitateak sinatuko duten konbenio bati esker, datorren maiatzeko edo, beste 30-40 suhiltzaile boluntario izan daitezke. Suhiltzaile horiek ez dute ezer kobratu eta German Berezi-bar,

Mankomunitateko gerenteak adierazi digunez "horrek ez du esan nahi boluntario izateak aukerak eman ditzakeenik gero suhiltzaile profesional izateko. Konpentsazio ekonomikoa izango dute, baina segurotan, dietetan eta horrelakoetan, inolaz ere ez soldata bat".

Boluntaria izan nahi

dutenek minimo batzuk bete beharko dituzte: 72 ordutako ikastaro bat egin, baldintza fisiko minimoak bete eta gauza berriak ikasteko prest egotea.

Boluntarioak 5 edo 6 kideko taldetan eratu dira eta aste bakoitzeko talde batek egon beharko du lan egiteko prest, euren aukeraketaz Zubillagako suhiltzaile profesionalak arduratuko direlarik. "Pertsona hauek profesioaren laguntzarako izango dira. Esate baterako ur handiak edo sute handiak izaten direnerako dira, eta ez zaie edozein gauzatarako deituko" diosku Berezibarrek.

Suhiltzaile boluntarioei ekipo bat emango diete eta eurei txanda da-

gokienean, ekipoa prets eduki beharko dute ez beharra izan deneko lekura berehala joateko.

## Suhiltzaile gehiegi Zubillagan

Suhiltzaile boluntarioen figura beste estatu batzuetan, Alemanian, Frantzia, Australian... esate baterako, funtzionamenduan dago. "Gainera-dio Berezibarrek- aurreko urteetako suhiltzaileen irteerak ikusiz, gebienetara bat edo bi joan izan dira eta orduan ez dugu beharrezko ikusten errelebo bakoitzeko 5 suhiltzaile izatea. Datuek erakusten digute txanda bakoitzeko 3 suhiltzaile eta boluntario taldearekin zerbitzu egokia eskeini

dezakegula".

Datorren urtarrilaren 26an Mankomunitateak Batzar Orokorra egingo du Antzuolan eta dagoneko suhiltzaile boluntarioen plana bultzatzearekin ados agertu dira Elgetako, Bergarako, Oñatiko, Antzuolako eta Gatzagako Udalak. Falta diren beste hirurak, Arrasate, Eskoriatza eta Aretxabaletak oraindik ez dute onartu Udaleko plenoan plan hori. Antzuolako bileraren ondoren programa martxan jarriko da eta otsailean izena emateko epea zabalduko da. Horren ondoren boluntario hautatuek, frogak pasa ondoren, 72 ordutako ikastaro bat izango dute eta maiatzaren amaierarako programa mar-

txan has daiteke.

### Suhiltzaile profesionalen desadostasuna

Zubillagako suhiltzaileak, nahiz eta ados egon boluntarioekin eta beharrezkoa ikusi euren partaidetza, uste dute erakunde berri horrekin "boluntarioek suhiltzaile profesionalak ordezkatzeko dituztela". Hori argudiatzeko, Zubillagako suhiltzaileek adierazi digute, "gaur egun Zubillagako parkeak ezin du zerbitzu egokirik eskeini suhiltzaile faltagatik. Hasi ginenean 30 suhiltzaile geunden, baina orain bajak, trasladoak eta bakanteak direla eta, Zubillagan 18 suhiltzaile gaude".

### Suhiltzaile profesionalak gutxitu

Suhiltzaile boluntarioak jartzeko asmoa 1985eko akordio bati esker aurreikusia zegoen. Suhiltzaileek adierazi digutenez, horrekin ados daude baina euren arabera, "plan hartan aurreikusten zenez, 25 suhiltzaile

profesionaleko 10 boluntarioak izan beharko lirateke. Orain, berriz, profesionalen kopurua gutxitu eta boluntarioena gebitzeko asmoa azaldu dute. Horrekin euren asmoa suhiltzaile profesionalen plazak boluntarioentzako plaza bihurtzea da".

Horrekin lotuta, Zubillagako suhiltzaileentzat funtzionamendu mixtoarekin, Deba Garaiko biztanleentzat suhiltzaileen zerbitzua txarragoa, geldoagoa eta efikazia gutxiagokoa izango da.

"Kontutan izan hastinenean esaten zigutela larrialdi deia jaso eta minutu batera irten behar genuela. Baina orain boluntarioek euren lana dute eta lanetik irten eta parkera beltzen direnarako gutxienez 10 minutu pasako direla. Eta denbora hori istripu larrietan edo suteetan gehiegizkoa da" adierazi digute suhiltzaileek.

### Prebentzio eza

Suhiltzaileen lanaren beste atal garrantzitsu bat prebentzioarena da eta hor ere Zubillagako suhiltzaileek gaur egun, eu-

ren parkeari dagokionez behintzat, ez dute ikusten instituzioen aldetik lan egokia egiten ari direnik. "Prebentzioa eskoletan, auzo elkarteetan eta lan-tegietan istripu bat nola ebitatu eta izaten direnean nola jokatu behar den adieraztea da. Gaur egun lan hori Bilbon eta Irunen egiten da, baina Deba Garaian personal faltagatik ez dugu betetzen" diote suhiltzaileek. Horretaz aparte Zubilla-

gako suhiltzaileek boluntarioen zerbitzuari buruzko xehetasunak prentsa-ren bitartez jakin izan dituztela adierazi dute eta euren ustez "gure eritzia ez da kontutan hartu".

Euren jarrera azaltzeko asmoz Mankomunitateko Udal guztietara jo dute, baina bakarrik Eskoriatzako Udaleko ordezkariekin izan dute harremanik: "nahiz eta asmoa herri guztietako ordezkariekin izatea den".



German Berezibar Mankomunitateko gerentea.

# YAZKI

## UME GAZTE

### Neska eta Mutil

Irizar 3      Ibargaral 8  
Tfnoa: 76 16 54      Tfnoa: 76 54 73

A  
R  
R  
A  
N  
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

# LAN ESKAINTZA

JARDUNek, gazteria arloan lan egiteko,

PERTSONA BAT hartuko luke.

Interesatuak bidali kurrikulumak uratrriaren 24a baino lehen JARDUN Elkartera (Masterreka, 13).

BALDINTZAK:

- Ezinbestekoa izango da bergararra izatea.
- Beste gauza batzuen artean JARDUNeko bazkide izatea baloratuko da.



# Ekitaldiz jositako Gabonak

- *Gabon euritsuak izan dira aurtengoak*
- *Gaztetxea bi egunez zabalik izan da*
- *Errege bezperako gauean kanpotik etorritako jende asko*



## ESKAPARATE LEHIAKETAREN

irabazleak, Gisasola burdinaki dendako Patxi Berraondok, Luis Abajo zinegotziaren eskutik Bergarako harmairekin egindako plaka oroigarria jaso zuen abenduaren 27an. Berraondok 100.000 pzta. ere jaso zituen lehen saria irabazteagatik. Bigarren saria M2 Errotuloak jaso zuen (50.000 pzta) eta hirugarrena, azkenik, Ninika loradendak (25.000 pzta).

## Ur haundiak

Euskal Herrian izandako eurijasek Bergaran ere eragina izan zuten. Abenduaren 24, 25 eta 26ko euri zaparradek eraginda Deba Ibaiak gainezka egin zuen Osintxu aldean. Bergaran ez zuen errekek irten baina ur haundiak oso ikusgarriak gertatu ziren.

## Gaztetxea zabalik

Abenduaren 25ean, Natibitate egunean, Gaztetxea zabaldu zuen herriko gazte talde batek. Portaleko atea zabaldu eta edariak banatu zituzten Gaztetxeko tabernan. Musika ere jarri zen eta gau partean eta hurrengo egunean zabalik izan zen. Gogoratuko denez Bergarako epailearen aginduz Gaztetxea itxi egin zuen Ertzaintzak abenduaren 15ean. Gaur egun ere itxita dago.

**KIROL SARIAK** banatu ziren abenduaren 29an Kultur Etxean. BERRIGARAK eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako sariketan, Iker Muruamendiarazek (argazkian) irabazi zuen herriko kirolaririk onenaren saria, Iñigo Igartuak goi mailako kirolaririk onenarena jaso zuen eta Pol-Pol Mendizale Taldeak kirol talderik onenarena. Epai mahaiak Lokatzako Pello Garitanori sari berezia eman zion azken urteetan egindako lanagatik.





**IDOLAZ** euskara elkartearen aurkezpena egin zen abenduaren 30ean. Antzuolako zine aretoa jendez gainezka zegoela azken urteetan Antzuolan euskararen erabilera bultzatzeko lanean jardun duen taldeak aurkezpena egin zuen herriaren aurrean. Roke Iñarra alkateak, Jose Angel Mikeo DEBAGUNEko presidentek eta IDOLAZ elkartearen bultzatzaileetariko batzuk elkarte honen betebeharrak, egitasmoak, e.a. agertzeaz gain bazkide egitera animatu nahi izan zuten jendea. Aste horretan eta Sorrera Batzarraren inguruan hainbat ekitaldi ere antolatu zituen IDOLAZek: Hitzaldia, jaialdia, ipuin kontalaria... Orain bazkide kanpainan buru-belarri murgilduta dabilta; bi kuota jarri dituzte: 500 pzta. langabetu eta ikasleak eta 3.000 gainontzekoak.

Karroza eder batean, ipotxak alboan zituela, Bergarara hurbildu zitzaigun **BIZAR-ZURI** abenduaren 30ean. Udal-biltegiaren itxaron ondoren, arratsaldeko 7.30etan irten zen kalera eta espaloietan zain zeuden haurrei gozokiak banatu zizkien. Gaztetxoek prestatuta zituzten gutunak hartu eta bere zorroan gorde zituen Errege Magoei emateko. Hauek, berriz, urtarrilaren 5ean etorri ziren Orientetik txikitxoei opariak banatzera.



**REALAK** eraman zuen Bergara Kirol Elkarteak antolatutako Gabonetako gazte mailako futbol txapelketa. Aloña Mendiren aurka 5 eta 0 irabazi zuen abenduaren 31n jokaturako finalean. Txuri-urdinek Bergarako gazteei 1 eta 0 irabazi ondoren heldu ziren finalera eta oñatiarrek, berriz, Eibar-Urko gaintitu zuten final aurrekoetan. Bergarako zaletuek Realeko gazte mailako taldean ari den Lopez Rekarteren -Deportivokoaren anaia- trebetasuna gertutik jarraitzeko aukera izan zuten. Etorkizun bikaina aurrikusten zaio arrasatearrari.

# JAIALDI "OLINPIKOA"

Mariaren Lagundiko areto nagusia bete-beterik zegoela, hiru ordu t'erdiko saio umoretsua egin zen joan zen abenduaren 28an. Olinpiada Batzordeak uda partean antolatzen dituen Olinpiadetarako sosak biltzeko eratutako jaialdian play-back saioak, kantaldiak, txiste kontalariak, antzerki saioak e.a.ak ikusi ahal izan zituzten bildutako 600 bat lagunek. Ondoko argazkien bidez kontatzen dizuegu jaialdiak eman zuena.




Argazkian dituzuen neskek irabazi zuten lehiaketa. Ezkerretik eskumara: Amaia Aperribay, Blanca Cebrian eta Yolanda Cebrian. Nagore Laskurain eta Nekane Gabilondok osatzen dute bostekoa.




Goiko argazkian "Altos Pornos"-en eskutik Xuxa Bergaran ikusteko aukera izan genuen. Bera zuzenean ikusi ondoren, argi dago telebista "gezur" haundi bat dela. Behekoan, berriz, agerian geratu da horrenbeste jenderekin kakalarria edo sartu zaiola aurkezleari.





Goiko argazkian txapeldun hegalaria eta behekoan Mikel Fernandez eta Mikel Ibarzabal abeslariak eta hauek laguntzen argazkian ageri ez diren Poti (bateria), Jabi (kitarra) eta Bitxor (bajoo). Katrin eta Maitek txalaparta jo zuten. Mikel Fernandezek konposatutako bi abesti eskaini zituzten eta ikusleagoa zoraztea lortu zuten. Mikel bakarka hasiko ote den entzun da musika giroetan.



Goiko argazkian Macario eta Jose Luis Moreno lanean eta behekoan, aldiz, Virago antzerki taldea.



## ERANTZUN IZAUGARRIA, OLINPIADA BATZORDEAK GABONETAN ANTOLATUTAKO EKITALDIAK

**BOLEIBOL  
TXAPELKETA**

Labegarietako Altos Pornos taldeak eraman zuen. Udal Kirol Zerbitzuak aurten bigarren aldiz antolatu duen txapelketan zortzi taldek hartu dute parte. Urtarrilaren 3tik Sera bitartean jokatu zen Labegarieta Kiroldegian eta esan bezala Altos Pornosek irabazi zuen. 25.000 pzta. eta trofeoa jaso zuen. Bigarren P.C. El Gallego (trofeoa) geratu zen eta hirugarren Gases Nobles (trofeoa).



Ekialde urrunetik Bergararaino etorri ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar **ERREGE MAGOAK** urtarrilaren 5ean. Hurrei erregalo ederrak ekarri zizkien eta kalejira egin ondoren euren biltegira erretiratu ziren gauetan etxez-etxe joateko. Lehioetatik sartu eta Gabonetako arbolaren ondoan utzitako zapatetan opariak laga zituzten. Hurrengo egunean, ostera, festa ederra: bideo-jokuak, trizikloa, bizikleta, kotxe-kapota, tren elektrikoa edota panpin dotorearekin jolasean ibili ziren etxeko gazteenek herriko plazetan.

Bien bitartean Gaztetxeko Asanbladak egindako deiari erantzunez, 150 bat lagun bildu ziren **KALEJIRA ERREIBINKATIBOAN** egun berean. Errege kabalgataren aurretik, Kukumako hankapaluak, malabaristak eta txalaparta jotzaileak herriko kaleak zeharkatu zituzten, Gaztetxeari irtenbide bat aurkitzeko eskatuz. Bestalde, eta Euskal Herriko Gaztetxeen Koordinadorak luzatutako deiari erantzunez, herriko 50 bat lagun (autobus bat) Donostiara joan ziren. Gazteen problematika (Gaztetxerik eta bizitzeko





# Miserableak



Afizionatu talde batek egindako lana izateko Musika Eskolakoek kalitate handiko espektakulooa prestatu dutela azpimarratu dute guztiek. Kukuma taldekoek prestatutako eszenografia ere goraiatzekoa benetan. Material gutxirekin eta irudimen askorekin zer egiteko diren erakutsi zuten.

## 4.000 lagunek ikusi dute Musika Eskolak antzeztutako muntaia

Zoragarria, hunkigarria, eta antzerako hitzak entzun dira Musika Eskolakoek bultzatutako muntaia ikusi dutenen ahoetan. Ez da gutxiagorako, 4.000 lagunek ikusi dute: 1.000 entsaiu egunean, 1.400 estrenean eta 1.600 bigarren emanaldian. Horrenbeste jende erakarri duen espektakulorik ez da inoiz ikusi Bergarako Pelotalekuan. Frontoia ez da horrelako ikuskizunak antolatzeko tokirik aproposena, herriak gehiago merezi du eta agintariek oso kontutan hartu beharko lukete.

Errege eguneko estrenearen ondoren, Euskal Herriko antzoki ezberdinetan "Miserableak" emateko eskaintzak jaso omen dituzte Musika Eskolakoek. Eibar, Oiartzun, Gasteiz, Victoria Eugenia, Arriaga... izen ugari aipatu dira, baina oraindik ez dira zehaztu. Bizimodua musikatik ateratzen ez duten 135 lagun herriz-herri mugitzea ez da erraza. Zorionak Musika Eskolari 10. urtebetetzean eta azken hilabeteetan egindako lanaren fruitua dasta dezatela inguruko herrietan ere.

# Miserableak



Bikain abestu ezezik, primerako aktoreak direla erakutsi zuten taula gainean zirenek.



Mutikotxo taldeak txalo ugari jaso zituen.

9 urtetik 71 urte bitarteko 135 bergarar "Miserable".


## AGINTARIEN IRITZIA



**Jesus Alvarez**

Musika Eskolako Presidentea

"Azken hilabeteetan egindako esfortzuak saria jaso duela uste dut. Eskerrak eman nahi dizkiet, bereziki, ixilean lan egin dutenei eta herriari eman duen erantzunagatik".



**Victoriano Gallastegi**

Bergarako Alkatea


"Oso emozionatuta nago, sekula ez dut horrenbeste txalo jo. Alkate moduan harro sentitzen naiz. "Miserableak" musikala Euskal Herrietatik zehar erakustea da Udalaren asmoa".



**M. Jesus Aranburu**

Kultura Diputatua

"Eskuko minez gelditu naiz txaloka, benetan Polita izan da. Jendeak horrelako gogoarekin lan egiten duenean espektakuloak aurrera ateratzen dira. Musika eta orkestra batez ere, izugarri gustatu zait".



**Gurutz Larrañaga**

Donostiako Kultura Zinegotzia

"Oso hunkigarria izan da. Meritu izugarria izan duzue bergararrok hain ondo antolatzerakoan, hau ez da broma. Eszenografia azpimarratuko nuke. Victoria Eugenia ematea mereziko luke".

## IZKUTUKO KONTUAK

✓ Euskal Herriko komunikabide garrantzitsuenetako berriemakak izan ziren "Miserableak" lanaren emaldietan. Prentsa eta irratiez gain telebistak ere bai. ETBk jarraipen zehatza egin zuen informatiboetan eta *Iparra* kultura saioan erreportaia eskaini zion. Arrasate Telebistako kamarak ere izan ziren.


✓ Baina ez ziren kamara bakarrak izan. Enpresa pribatu bat kontratatu zuten antolatzaileek emanaldi guztia hartu zezan. Grabatutako irudiekin bideo bat egingo dute eta Musika Eskolako artean banatuko da. Jendeak eskatzen badu salgai ere jarri daitekeela adierazi digute antolatzaileek.

✓ Bergaratik kanpo antzetzeko eskaintza ugari izan dituztela entzuten da kalean. Musika Eskolakoei eta Udal agintariei ez dute ezer aurreratu nahi izan. Eibarren eta Oihartzunen emateko egunak zehaztu dituztela entzun da. Gasteiz, Bilbo eta Donostian ere eskaini dezaketela... Estrenu egunean, saioa hasi aurretik, enpresari bat hurbildu omen zitzaion Valen Moñuxi eta Arriaga eta Victoria Eugenia emateko eskaintza jaso egin omen zion. Ikusi beharko da zertan geratzen diren kontuak.

✓ Soinuaren kalitatea azpimarratu dutenak asko izan dira. Hori horrela izan zedin, teknikoei 45 bozgoragailu txiki jarri zituzten frontoian sakabanatuta. Papaparraren zintzilik jartzeko 10 mikrofono txiki erabili ziren eta beste hainbeste mikrofono normal. Orkestak 5 erabili zituen: grabaeak eta agudoak jasotzeko bi mikrofono eta teklatuak, kitarra akustikoak eta bateriak ere bana erabili zuten.



Horrek ditun pintak horrek.



Enjolras eta Marius, Rafa Moñux eta David Azurza.

## PROTAGONISTEN IRITZIA



**Iñigo Ibarzabal**  
*Mutiko eskalea, 9 urte*

"Primeran pasatu dugu entsaiuetan eta estreno aurretik nerbixoa batzuk izan nituen arren, berehala pasatu zitzaizkidan. Uste dut guk, gaztetxoek, txalo gehien jaso genituela".




**Fran Iturbe**  
*Kitarra solista*

"Ez nuen espero hain ondo irtengo zirenik gauzak. Banekien jendea gustora geratuko zela, herritarrek bultzatutako lan bat zelako, baina maila altua lortu da eta kanpoan ere antzetzu daiteke".



**Irene Agirre**  
*Orkestako bibolina*

"Orkestarentzat lan berria izan da, sorpresa bat izan da. Hilabete inguru eman dugu entsaiatzen, Barriara joan ginenetik. Pena da hainbeste lan egin eta gero kanpora ez irtetzea, uste dugu irtengo garela".



**Gerardo Mondragon**  
*Javert Inpsektorea, 66 urte*

"Orfeoiarekin bere garaian, Bilboko Korallarekin, Pamplonesarekin e.a.ekin toki askotan ibilia naiz, baina herritarrok aurrera atera dugun lan hau duda barik onena izan da".

# Miserableak

*Estrenuko urduritasunak gainditu eta gero, biharamona:*

## "Ez genuen espero horrelako erantzunik izaterik"

**Estrenu aurreko nerbixuak eta osteko txalok ahaztu dituzte dagoeneko eta eguneroko jardunean murgilduta daudenean, urte t'erdiko lanak emandako fruituaren balorazioa egiteko ordua iritsi zaie. Kaseta eta argazki makina hartu eta Musika Eskolako gela batean bildu gara egitasmoaren bultzatzaileekin.**

Pozik daudela antzematen zaie. Ez da gutxiagorako, "Miserableak" muntaiak iritzi onak jaso ditu eta komunikabideek eman dioten garrantzia eta herritik kanpo izan duen oihartzunak, batez

ere, harrituta utzi dituzte: *"berriko berriematek isladatuko zutela bagenekien, baina Euskal Herriko egunkari gehienetako kulturako orrialdeetan eta irratian eta ETBn agertzea ez genuen espero, ikaragarria izan da. Beldur ginen, baina orokorrean kritika onak jaso ditugu"*. Diosku Valen Moñuxek.

Kritikoez eta musika jakitunek azpimarratu duten aspektu bat antzezlearen eta orkestaren arteko konexioa izan da. Alfredo Gonzalezek dioen moduan, *"guretzat hori zen zailena, kontutan izan behar da Orkestak ez du-*



"Miserableak" lana bultzatu duten etariko batzuk.

*ela horrelako lanik sekula egin, eskenatoki baten gainean dauden abeslariak ez ditu inoiz lagundu eta lehenengo aldia izateko oso pozik nago, basieran zalantzak nituen eta ustekabea izan da niretzat"*.

"Miserableak" ikusi duten guztiei entzun dioguna, bestalde, soinuaren kalitatea oso ona izan zela da. Ez da erraza izaten Orkestaren eta abeslariaren artean ekilibrioa mantentzea eta bata besteari gaintik entzutea sarritan ekidi ezinikoa izaten da.

Hala ere, soinuaz arduratu ziren teknikoez ere lan izugarria egin zuten.

### Bigarren emanaldian jende gehiago

Jendearen aldetik izan duten erantzunak ere harrituta utzi dituzte: *"Hasieran zalantza asko izan genituen emanaldi bat ala bi egiterako orduan. Bakarra izan ezker, frontoia beteko genuela bagenekien baina bigarren bat agiteko ez geneukan gauza oso ar-*

## HERRITARREN IRITZIA



**Belen Txintxurreta**

35 urte, langilea

"Afizionatu batzuk egindakoa izateko, kalitate oneko espektakulua da "Miserableak".

Sorpresa izan zen, ez bainuen uste hainbestearinokoa izango zenik".



**Kandido Urriategi**

73 urte, jubilatua


"Bigarren egunean joan nintzen eta aurretik obrari buruzko iritziak entzunda nituen arren, ustekabe handia hartu nuen. Azkenengo saioa, barrikadetako estampa, niretzat onena".



**Maribi Visitación**

23 urte, ikaslea

"Polita izan zen. Oso gustora pasatu nuen eta musikarekin batez ere, asko gozatu nuen. Horixe izan zen gehien gustatu zitzaidana, musika alegia".



**Andres Martínez**

44 urte, langilea

"Oso ederra iruditu zitzaidan, polita benetan. Bergarako Musika Eskolan maila handia dagoela uste dut. Hala ere ez nuen hainbeste espero. Herritik kanpo antzeztu daitekela uste dut, trankil asko".

## PRENTSAK JASOTAKOA

"Bergara Broadwayren b-rekin idazten da. Miserableak muntaiak Londresen eskaintzen den obra originalak beste unkitzen du eta "Nirekin edan" edota "Egun bat" abestiek oilo-larrua jartzen dizute".

**TERESA FLAÑO**  
EL DIARIO VASCO

•••

Aktoreen lana, guztiak bergararrak, Bergarako Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoarena eta argizatzeaz arduratu ziren teknikoena, maila altukoa izan zen".

**GOTZON ARANBURU**  
EGIN

•••

"Bergarako Musika Eskolakoek antzeztu duten obra honek, antzokia behar du, artisten lana zer tamainokoa den neurtzeko eta bide batez, lana bera, hobeto gozatzeko".

**ANDRES OSA**  
"SAKONA"  
DEIA

•••

"Taula gainera haur talde bat irten zenean ikusleagoak bere txaloeekin bazirudien pilotalekuko hormak apurtuko zituela".

**MIKEL**  
ELKOROBerezibar  
EGUNKARIA

•••

gi. Uste dugu aboz-abozko informazioak oso ondo funtzionatu duela oraingoan. Lehenengo egunean ikusi zutenak beren lagun eta senitar-tekoei pasa zien "informea" eta bigarren egunean aulki gebiago jarri behar izan ziren kantxan. Asko dira gainera, bi emanaldietan izan zirenak".

### Antzoki bat

Bai Valen eta baita Alfredok ere, herrian antzoki baten beharra ikusten dute. Frontoia ez da tokirik aproposena eta kasu honetan pelotalekua erabili baldin bada ere kontutan izan behar da, segurtasun neurriak direla eta, azken aldi ezin izan dela inolako jaialdirik antolatu. "Argi dago Bergarak auditorium bat behar duela. Guretzat, protesta egiteko modu bat izan da, jendeari ikustarazi frontoia ez dela toki egokiena, manifestazio bat egin beharrean, gau-

za positibo bat egin herriaren eskasiak agerian geratu zitezen".

Gai honekin jarraituz,

"Miserableak" antzezteko frontoia "zabaldu" izana kritikatu dutenak ere izan dira herrian.

### Eskerrik asko guztiei:

Victoriano Gallastegi, Luis Abajo eta Bergarako Udala; Rufina Olasagasti, Iñaki San Jose eta Udaleko lan-taldea; Fran Iturbe eta Aitor Aranburu; Mariaren Lagundia Ikastetxea, Simon Arrieta eta Zeramika tailerra (Marivi Peña), Gisasola burdinaki denda, Jantziak utzi edota egiten lagundu digutenei: Xamatx, Maria Dolores Moñux, Rosa Ceceaga, Juanita Sebal, Antoni Gaztañaga, Lorea Juldain, Maria Jesus Inza, Mari Carmen Nieto, Agurtzane Azkarate, Esther Fraile, Vitori Vega, Rosarito Markiegi, Mari Angeles Vicente, Jesusa Idigoras, Matilde Beaskoetxea, Maribel Suinaga, Aurora Almanoz, Arantzazu Narbaiza, Pilar Erdabide, Maritxu Erdabide, Carmen Goyena, Jaione Agirre, Maria Teresa Urbesalgo, Maria Jesus Urriategi, Maria Josefa Urriategi, Maria Teresa Urriategi eta Laura Ugalde.

Ileapaindegia eta makilaia: Itziar Arzelus, Rosa Rodriguez, Maritxu Muruamendaraz eta Igarro Lurrindegia.

Emanaldi egunetan gauzak bere bidetik joan zitezen, lan egin zutenei: Julen Narbaiza, Felix Iñiguez, Luis Gutierrez, Jose A. Etxeberria, Juanjo Gurrutxaga, Ignacio Beldarrain "Azpeiti", Jesus Alvarez, Anartz Agirre, Ane Olabide, Amaia Sasiain, Irene Murgiondo, Julen Montealegre, Jokin Mendaraz, Kepa Mendibil, Igor Larrañaga, David Lopez de Abetxuko, Asier Lazkano, Lorea Larrañaga, Amaia Urdangarin, Mari Jose Juaristi eta Elisabeth Mendaraz.

Etxepare-Bilintx, Usoa, Ariznoa, Lazkano oinetako denda, Kutxa, Jose Lamariano, Donostiako Gastronomika Elkartea, Gimnasia Erritmikoa, Bergara Kirol Elkartea, Iñigo Idarreta, Frontoiko Enpresa eta frontoiko taberna, Pertxa Elkartea, Altsasu Elkartea, Gurutze Gorria, Berrigara, Arizondo, Bergarako berriemate eta kazetariak eta "Miserableak" ikuskizuna aurrera ateratzeko borondate onez lan egin duten pertsona guztiei.

*Miserableak*



"Edan dezagun denok elkarrekin, bihotzak alaitu eta kantatzeko gogoak pizten ditu eta".

**FS** oto sistema *APBénis*

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallstegi, 2 ☎ 76 00 50

**LAKET**

**Gizon Emakume**

Barrenkale 35 BERGARA

**CAMACHO**

**Drogeria  
Usaindegia**

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35  
BERGARA

**Zein eritzi daukazu Mario Conderi buruz?**



**Jose Luis Martinez**  
21 urte, ikaslea

Hasieran Banestok gora egin zuen berarekin baina dirudienez ez zaio batere ondo irten. Ez zait ondoegi jausten.



**Ainhoa Rodriguez**  
17 urte, ikaslea

Neri gaizki jausten zait. Horretaz ez dut asko ulertzen baina tonto bat delako susmoa daukat.



**Maritxu Murgiondo**  
50 urte, etxekoandra

Dirua egin du eta harek ez du galduko. Egin duen zuloa ez zait batere ondo iruditzen; Halere, kaso gutxi egiten diot.



**Celestino Vicente**  
67 urte, jubilatua

Lehen oso zuhurra zen baina itxuraz orain... ez horrenbeste. Guztiok engainatu gaituela uste dut.

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 SS

**BERGARA**



**POL - POL TABERNA**

Tfnoa: 76 07 78

**DEPORTIVO TABERNA**

Tfnoa: 76 01 51



### Urte berriko egutegiak

Urte Zaharra bukatzean eta berria hastean ohizkoa da herriko taberna eta dendetan bezeroen artean egutegiak banatzea.

Egutegiak era guztietakoak izaten dira: paisaiak, animaliak, txisteak... baina badaude emakumeon duintasuna eta izaera iraintzen dutenak ere; normalean, emakumeon gorputz biluziak, merkatuan dagoen beste edozein produktu bezala aurkezten dizkigute.

Urtero urtero ateratzen dira era honetako egutegiak eta emakume taldeek urtero urtero salatzen dituzte. Emakumeok ez gaude gorputz biluzien kontra, bai ordea, gure gorputzak edozeinen esku dauden objektu gisa agertzearen aurka.

Aurten ere ikusi ahal izan ditut era honetako egutegiak. Gure herriko hainbat tabernak gorputz biluziak aukeratu dituzte aurtengo beraien egutegietako marrazki gisa. Honek ez nau gehiegi larritu, urtero gertatzen den gauza baita, baina bada harritu nauen gauza bat, taberna hauen artean Bergarako batzokia agertzea, hain zuzen ere.

Zaila izango da herritarron jarrera eta jokaerak aldatzea boterea duten alderdi politikoek aldatzen ez duten bitartean. sssOrdua da ba, hainbat urtetan dirauen emakumeon zapalkuntzaren aurka zerbait egiten has gaitezen, ez soilik emakumeak gizarte osoak baizik.

**Agurne Barruso**



### Sua eta ura belaunetik behera

Esaera zahar askoa eta ez arrazoirik gabea. Beré tamainan hain beharrezkoa bada ere, aurreko astean ondo baino hobeto erakutsi bait zuen suak haserretuz gero zenbaterainoko hondamendia egin dezakeen. Benetan negargarria bai, Barakaldoko sendi baserritarrari gertaturikoa.

Baina kasu honetan ondasun baliotsuena galdu bada ere, bizitza, edozein baserri erretzen denean, bizitokia gain lantokia eta azken batean bizitzaren ardatza galtzen da.

Horregatik, eta ura pasa eta gero presaginan hastea alperrik denez, suari aurea hartu, prebenitu eta gutxieneko lasaitasun batean bizitzeko beharrezko direnak gogoratu behar.

Azken urteetan baserri asko konpondu dira, argi indar eta antzekoen instalazio asko berriztatuz, zorionez, baina dextente dira oraindik arriskua sortzetik kanpo lehen bait lehen jarri beharrekoak. Eta inbetsio honek lehentasun osoa behar luke baserri guztietan. Baina arrisku nabarmen hauek ebitatu arren ere, baserriko eguneroko lanean beti dago deabrua tentatzen, horregatik, suaren inguruko edozein lan dela, makinaren txispn arriskua dela... beti argi baino argiago ibili behar. deabrua tentatzen, horregatik, suaren inguruko edozein lan dela, makinaren txispn arriskua dela... beti argi baino argiago ibili behar.a, prezio egoki batean, baina kontuan hartuaz zer eta zergatik ordaintzen duzun, zerbait gertatuz gero sorpresa txarrik izan ez dezazun. Informa zaitetz bata lantzea inbetsio on bat egitea da eta.

**Maite Aristegi**

## ESKUALDEKO PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA

### Psikologia gabinetea. BERGARA

KONTSULTA, DIAGNOSTIKOA, TRATAMENDUA (Haur, gaztetxo eta helduentzako)



#### LOGOPEDIA-FONIATRIA

- AHOTS, HIZKETA eta LENGOAIA ZAILTASUNEN BIRGAITZEA.
- DISFONIAK. Birgaltze eta prebentzioa: noduloak, polipoak, edemak, ahotsa behartzearen ondorioak, laringea kendutakoan birgaltzea.
- DISLALIAK: ahoskatze arazoak.

#### • DISLEXIAK

- TOTELTASUNAK
- AFASIEN eboluzio eta tratamendua: kalte kraneoenezefallkoen ondorioak, burmuin zainen gaitzak, enzefallitak.

#### PSIKOMOTRIZITATEA

**ESKOLA ATZERAPENERAKO LAGUNTZAK**  
**PSIKOLOGIA KLINIKOA**

Herri Lagunak (Aranzadi Ikastolako patioetik sarrera). ☎ 76 14 80.  
Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal.

# GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34

# TXISTU MOTOR

KOTXE BERRIZKETAK  
SKODA ZERBITZU BERRIA



Volkswagen taldea

Aribar Poligonoa. San Juan  
auzoa ☎ 76 09 31 BERGARA

# OILAGORRA

Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

# GANBARA

**Berezitasunak:**  
**Pintxoak eta**  
**kafea kremarekin**

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

T  
B  
E  
R  
N  
A

# AGIRREBEÑA

Oinetakoak  
Erropa denda  
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29



## □ Taun-Taunek "Boleros" aurkeztu

Taun-Taun Txotxongilo taldeak "Boleros" bere azken lanaren aurkezpena egin zuen abenduaren 30ean. "Taun-Taun Show" (Lehen Saria Azpeitiako Euskadiko Antzerki Topaketetan) bere azken lanaren ondoren, oraingoan maitasunari buruz duten ikuspegia ematen saiatu dira. Nobedade gisa, azken honetan Karmele Perez, Itsaso Azkarate, Karlos Odriozola, Pili Garzia eta Iñaki Matak (azken biak argazkian entsaiatzen) manipuladore-aktore lanak beteko dituzte. Miren Urkijo, berriz, dramaturgiar arduratuko da eta panpinak Nartxi Azkargortak egin ditu. Martxo aldera *jiran* hasi aurretik, "Boleros"en estreinua izango dugu Bergaran.



## □ EGINen aldeko zozketa


Egin egunkariaren alde Bergaran egindako zozketan, Kristina Baikoa (argazkian) antzuolarrak eskuratu zuen mendi bizikleta eta bi pertsonendako afaria Zumelaga jatetxean. 3.423, 8.657 edota 6.590 zenbakidun boletoak edukiz gero, Kristinaren sari bera jaso ahal izango duzue (epea urtarilaren 31n bukatuko da. 1.660 zenbakiaren jabeak, berriz, eskuz binakako pelota finalerako lau txartel eta 4 pertsonendako afaria irabaziko ditu.

MINER  
ard<sup>o</sup>ak

Biltegiko telefonoa: 76 41 41

Ardo  
onak,  
jakina





□ **Gaztetxoak Legebiltzarrean**

Asteartean **Legebiltzarra** ezagutzeko aukera izan zuten herriko gaztetxoek Labegaraietako Kiroldedian antolatutako muntaiari esker. "**Legebiltzarra zeurea ere bada**" lemapean, hainbat joku didaktiko izan ziren O.H.O.ko goi ziklokoentzat eta bestelako jokuekin ere gozatzeko aukera izan zuten: *Tyrannosaurio Rex* handiaren tripatik irrist eginez, Gaztelu Puzgarrietan saltoka, kotxe zuzenduekin, herriko kaleak zeharkatu zituen trenean... etab. luze bat. **Joseba Leizaiola** Legebiltzarreko presidentea eta **Iñaki Perurena** harrijasotzailea (animadore gisa) ere bertan izan ziren eta azken honekss autografo mordoia sinatu behar izan zuen jaialdiaren amaieran.


□ **Grua ikusgarria**

Astearte eta asteazkenean itxita izan dira trafikora Artekale eta Arrurriaga kaleak, bertan jarritako grua ikusgarri batengatik. **Gruas Usandizaga** enpresak hainbat lan burutu ditu bertan, epe laburrean oso egoera txarrean diren Arrurriaga kaleko 5 eta 7 zenbakiak bota ahal izateko. Oraindik ez da egunik jarri baina Iberduerok eta Telefonikak Artekalean egin behar dituzten lanekin batera, kalea itxi eta etxea botatzeko aprobetxatuko da. Ondoren, etxe berriak egingo dira etxe zaharrak zeuden leku berean.




**Zertan dihardute ba?**

**WATERPOLO TALDEA**



Barakaldoren aurka galdu eta Burgosen berdindu ondoren, Bergara Igeri Elkarteko waterpolo taldeak Leioako Askartzaren aurka jokatu du Euskal Ligaren barruan, larunbatean, arratsaldeko 7etan Legazpian.

**IÑIGO IGARTUA**



Abenduaren 26an Diman Euskadiko ziklo-kross txapelketa irabazi ondoren, 25 urteko txirrindulari bergarar hau bigarren sailkatu zen igandean Santanderren jokaturako Espainiako txapelketan.

**ederTu**

20 urte zure zerbitzura,  
kalitatezko altzariak eskaintzen

Barrenkale, 23

☎ 76 29 65

**BERGARA**



# Umore giroan

## Arrozakin kargautako kartutxuak?

An ziarduen kazan Petit Patxoa eta beste bi lagun, danak alkarrekin. Usuenpasia ikusi zebenian, asi ziran tiroka irurak. Eta bai jausi be usuak lurrera...

- Lenengo usua jausterakoan, diño batek:

- Neria!

Jausi da bigarrena, eta bestiak diar eitxen dau:

- Neria!

Bardin irugarren batekin. Orduan Petit Patxoiak:

- Baiña, mutillak, zuek zer uste dozue, nere kartutxoak arrozakin kargauta doazela ala?


## San Pedrontzako erreka

"Noche" abadia -Don Pepe Alberdi- famatua eta oso errikoia zan Eibarren. Eibartar bat oso gaixorik zeguan. Deitu detse Don Peperi gure gaixoa konfesau eta Gure Jauna eruteko. Sartu da abadia gaixuaren kuartuan. Abadia ikusizax batera, esaten detsa gaixuak:

- Zer Noche? San Pedrontzako errekaekin ator?

*Pedro Zelaia*

# ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Merkatuok orain 25 urte ere zeresan ugari ematen zuen. Argozkian, merkatu berria.

## Merkatu-plaza haunditzeko estudioa martxan

Sapatu askotan entzuten ditugu azokara doazen emakumeen arteko komentarioak; gaur egun azoka txikiagia dela, jendea bata bestearen gainean dagoela, estropezu eginaz, etxeko lanetara bueltatzeko presaka dabilzan etxekoandreen joan-etorriak oztopatuz; azken finean txiki geratu dela. Izan ere, garbi ikusten da azoka hori inauguratu zenetik (1905 inguruan) orain arte izugarri hazi dela herria eta ezin duela bete gaur egun beharko lukeen baldintzarik. Beraz, sapaturo bertaraten diren erosleak estu-estu eginda dabilta, jendetza haundiaren artean kabidu ezinda eta, jakina, inondako mesedegarri ez diren komentarioak eginaz.

Baina badira, azokara joan eta beste lagun batzuekin topo egiten dutenean berriketarako aukera aprobetxatuz pilaketa haundiak sortarazten dituzten emakumeak ere.

Madrilen egindako gestioak bide onetik doaz eta, ustez, luzaro itxoin barik izango dute etxekoandreek erosketak egiteko toki zabalagoa.

**La Voz de España. 1969-I-18. Alustiza.**

**Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak  
hemerotekatik bildutako notiziak**



**ILEAPAINDEGI MISTOA  
ESTILISTA.**

Artekale 29. Behea  
Hnoa: 76 29 70  
BERGARA

**ETXALAR**  
**KRUASANTEGIA**

Gosariak eta  
meriendak  
Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68

**Iletxo** Ileapaindegi  
mistoa  
**BEGOÑA ARZELUS**

Fleming Doktoea, 7 ☎ 76 53 15  
20570 BERGARA



**LIZAR**  
**Altzariak**

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

**MAHER**  
**Biltegiak L.E.**  
**Oihal etxea**

Bidekurutzeta 29,  
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75



**zumelaga**

**JATETXEA**

**ADRIAN ARRESE-IGOR**

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## ***GALDE DEBALDE***

**YOLANDA GARCIA**

Yoshiyasu Zenitani genuen Gabonen aurretik eta Bergarako hainbat margolarirekin batera bere lana ezagutzera eman zuen pintore japoniarra. Erantzun zuzena askok asmatu duzue (nahiz eta Zenitaniren izenak buruhauste ugari eman dizuen), baina guztientzat saririk ez! **Yolanda Garciak** izan du zorterik gehien eta berak eskuratu du **ARGAZKIk** emandako saria.

Zorionak berari.

Besteok ez etsi, segi jokutzen eta ea hurrengoan suerte gehiago duzuen.

# **HERRAN ETXEA**

**Sukaldeko altzariak**

Matxiategi, 4. 76 37 53

- Aurrera ezazu berokuntzan % 55era arte
- Aprobetxa itzazu gaueko tarifaren abantailak
- BERO-AKUMULADOREAK

**FAGOR**



**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



YOLANDA GARCIAK jaso du aste honetan ARGAZKIK emandako saria.

## HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53

- Aurrera ezazu berokuntzan % 55era arte
- Aprobetxa itzazu gaueko tarifaren abantailak
- BERO-AKUMULADOREAK



Hurrengo Galde Debaldeko saria HERRAN ETXEAk emango du.

# Galde Debalde

### Aste honetako galdera:

Azkenaldian Musika Eskolak bere X. urteurrean ospatzeko Gabonetarako prestatu izan duen "Miserableak" opera behin eta berriz ekarri dugu Berrigarako orrialdetara. Aste honetako Galde Debaldeko galderak mundu zabalean ospe handia lortu duen ikuskizun horren inguruan izango dira.

**Nork idatzi zuen "Les Misérables" nobela?**

**Zenbat hizkuntzatarara itzuli da?**

**Cameron Macintoshek bultzatutako "Les Misérables" musikala zein urtetan estreinatu zen Londresen?**



\_\_\_\_\_

- izena

\_\_\_\_\_

abizena

\_\_\_\_\_

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

# Axen Garitano, Espainiako Txakur Nordikoen Txapelketara datorren astean

**Axen Garitano bergararrak parte hartuko du datorren astebukaeran, hilak 22 eta 23, Alto de Campon (Asturias) jokatu den Espainiako Txakur Nordikoen Lasterketa Txapelketan.**

Axenen asmoa bere kategorian, B-1 deiturikoan (5-6 Siberian Husky txakur dutenen artean), hiru lehenengo artean sailkatzea litzateke; "Estatuko onenak joango direla kontutan izanik, asko poztuko nintzateke, baina zaila izango da. Hala ere, asko entrenatu dugu azkenaldian eta emaitza onak lortu ere bai".

## Momentu onean

Axenek lehen postua lortu zuen bere kategorian Lesakan, Zuhastin (Iruñea) eta Santanderren izandako probetan eta Erreterian, berriz, 2. postua eskuratu zuen. Hala ere, txapelketa elurretan



Axenek itxaropen handiak ditu Espainiako Txapelketari begira.

izango da eta horrek ez dio mesede haundirik egiten Axeni; "elur barik hobeto moldatzen naiz, bizikleta trineoa baino errezagoa baita erabiltzeko eta horrez gain estabiltate gehiago ematen du". Lasterketak 9 kilometro ingurukoak izaten dira eta elurra ez dagoenean 3 erroberako bizikletak erabiltzen dituzte partaideek aintzinako erromatarren kua-driga lasterketen antzera.

Txapelketari begira, elurretan hainbat entrenamendu egin ditu Axenek, Jose Manuel Alferez bergararraren laguntzaz: "Urbasa eta Arantzazun izan gara eta astebukera honetan Aralar alde-ra joko dugu txakurrak ohitu daitezen. Bestela, hemen inguruan entrenatzen dugu, San Martzial, Aixpe edota Amategi inguruan, beti ere aldapak dauden lekuetan". Esan bezala, urte

1'erdi eta 6 urte bitarteko sei Siberian Husky erabiliko ditu Axenek Espainiako txapelketan: Dancing, Queen, Inuk, Igloo, Yoki eta Thor. Asenen eritziz, "forma onean dira eta aldapan gora moldatzen dira egokien".

## Txapelketa Bergaran

Bestalde, martxoaren 27an Txakur Nordikoen Bergarako I. Lasterketa jokatu da Gorlan. Goizeko 11etatik 13.30ak inguru bitartean Gorlako Kantinatik Santutxura bitartean (Pol-Poleko iturritik pasatuz) lasterketa bat izango da eta ondoren txakurrak (Siberian Husky, Alaskan Malamute, Samoyedo eta Groenlandesak) Seminarioko patioan ikusgai egongo dira. Antolatzaileek 45 partaide izango direla espero dute eta txapelketa honetarako Bergarako Udalarik laguntza eskatu diote dagoeneko, aurrekontua milioi erdi ingurukoa izango baita. Martxoan, beraz, Euskal Herrian ez baina Ipar Europan ospe handia duen kirol bat ezagutzeko aukera izango dugu bergarar guztiok Gorla inguruan.

# Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50  
**AMETS TAILERRAK**  
 Berezano auzoa OÑATI

# Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
 ☎ 76 59 54 BERGARA



*San Pedroko Tarcisioak, 1940.*

**G** abonak amaitu arren, kantuan jarraitzeko gogo ez zaigu amaitu oraindik. Joan den urteko azken aleko erretratu zaharrean Santa Marinako ume kantariak agertzen baziren ere, hona hemen bestekaldekoak, San Pedrokoak hain zuzen ere. 1940ko Gabonetan Gabon kanten lehiaketan lehen saria eraman zuen taldea dakarkizuegu, San Tarcisioaren omenez eratutako Tarcisioak taldea.

Ezkerretik eskumara San Pedroko tripleak:

**Atzekaldean:** Karlos Albisua, Joakin Etxaniz eta Martinez.

**Erdian:** Inazio Juaristi, Laria, Matias Azkarate eta Joseba Azkarate.

**Makurtuta:** Luis Aierbe, Alberdi, Jose Antonio Lopategi eta Jose Kruz Iturbe.

*Argazkia: Nati Albisu*

**AUTOPULLMANS ARABA**

**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



**ETXEBIZITZA**

**Taberna** salgai Uberan. Prezio interesgarria. ☎ 76 25 99.

**Etxebizitza salgai** Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

**Pisua** alokatzen da Matxiategin. ☎ 79 37 97.

**Garajea** salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

**Pisua salgai** San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

**Garajea** hartuko nuke alokairuan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

**Pisu amueblatua** salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

**Etxea** salgai Katabian. ☎ 76 56 20 (gauzez).

**Garajea** salgai Iparragirren. ☎ 76 28 52.

**Pisua alokatzen** da. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

**Bergaran pisua** betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

**Etxe** bat alokatzen da San Antonion. ☎ 76 21 39.

**Garajea** salgai Sta. Mariñan. ☎ 76 43 89.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Etxea salgai** Masterrekan. ☎ 76 48 30.

**Etxebizitza salgai** Antzuolako Ibarra kalean. 80 m2. ☎ 76 57 38.

**DENETARIK**

**Omega erloju** bat galdu dut. Doratua eta narruzko korreaduna. ☎ 76 27 83.

**Talbot Samba (SS-S)** salgai. 50.000 pta. ☎ 76 45 81.

**Viallaroo PK50** motoa salgai. Berria. ☎ 763386.

**Baserri** bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

**Peugeot 205** kotxea salgai (SS-X). ☎ 760905.

**MSX ordenadoreko lau joku salgai.** Kartutxoak. ☎ 76 59 47.

**Sega Megadrive** salgai. 4 jokurekin. ☎ 76 25 12.

Grabadu beltzak dituen **zilarrezko pultsera** bat galdu nuen larunbatean. ☎ 761459.

Portugalgo **marmolezko mahaia** salgai, Singer josteko makinaren basearekin. 15.000. ☎ 765231.

**Ford Fiesta Sporta** salgai. ☎ 79 76 89 (Ion).

**Ebakigailu elektrikoa**, pisu elektrikoa eta erakustegi frigorifikoa salgai. ☎ 76 59 28/23 65.

**Renault 21 TXE** bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

Kaminoko "**Lasa**" bizikleta salgai. ☎ 787004 (Iker).

Paseorako Peugeot **bizikleta** salgai. ☎ 76 48 68.

**R-18 diesel** (familiarra) eta **Ford Fiesta** salgai. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

**Kotxe zahar** bat hartuko luke HIES Ekimena taldeak. ☎ 79 26 99.

8 hilabeteko **ume** baten dako **kotxea** erosiko nuke. ☎ 765231 (gauzez).

**Peltz eskalada** ekipoa salgai. ☎ 76 18 94.

**LANA**

**Gutxitu sikiko, elbarri** edota **zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 25.

**OHO eta ingeles** (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Pertsona zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

**Arratsaldez** lan egingo nuke. ☎ 76 21 39 (Rosi).

**Haurrak** eta gaisoak zaindu edota etxeak garbituko nituzke. ☎ 76 45 53

**Ingelesezko klaseak** ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Einakume heldu** bat behar da haur atzeratu bat zaintzeko. ☎ 76 49 72.

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 762290 (Ainhoa).

**Dibujo teknikoko** klaseak ematen ditut. ☎ 765516 (Jabier).

**Ingeles Filolojian** lizentziatuta, klaseak emango nituzke. ☎ 76 17 36.

Latin, Euskara eta Franses **klaseak**. ☎ 76 02 99.

**Hildakoak**

- Benito Eguren Candido* abend. 25
- Maria Mujika Barandiaran* abend. 25
- Luis Alberdi Larrañaga*, 29, 78 urte
- Mariano Ena Boroita* urtarr. 3, 75 urte
- Matias Laskurain* urtarr. 3
- Alberto Zabaleta Galdos* urt. 4, 70 urte
- Vicenta Mujika Barandiaran*, 4, 83 urte
- Juana Igarza Iñarra* urt. 10, 83 urte

**Jaiotakoak**

- Alexander Estévez García* abend. 14
- Amaia Jauregi Azkargorta* abend. 25
- Hodei Orobengoa Gallastegi* abend. 28
- Lara Alonso Santiago* abend. 29
- Aitor Alonso Elorza* urtarr. 8
- Andoni Ducun Unamuno* urtarr. 10

**Mujika Jantxidenda**

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91


**LAZKANO Oinetakoak**

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
BERGARA

**BOLINTXO**

*Kirola esiteko behar den guztia*

Ibargarai 10,  
☎ 76 38 32



# BEHERAPENAK

UNITED COLORS  
OF BENNETTON.

MAALAKO ERREBALA, 13 ("OKENDO KIROLAK" en ONDOAN) TEL.76 50 78. ARRASATE.